

Euskal eleberria (1914-1945): dardararen epizentrutik urrun

(The Basque Novel (1914-1945): Far from the epicentre)

Toledo Leceta, Ana M^a
Deustuko Unibertsitatea. Donostiako egoitza
Mundaiz, 50
20012 - Donostia

BIBLID [1137-4454 (1997), 14; 97-112]

Mende hasieraz geroztik subjektibizazio eta antierrealismo-prozesuan barrena amildua zen eleberria, lehen mundu-gerratearen ondoren setati azpimarkatzen joateko ezaugarriok. Mundua aldatu da, baita eleberria ere. Euskal eleberria ez zuen dardara honek harrapatu. Mende-mugaren ondotik azaleratzen den krisitik urrun, mundu egonkorrean oinak dituela eta ortzian izar finkoak, arrisku orotatik babesturik, ez du ukitu ere egiten. Bi mundu-gerren eta 1936koaren oihartzunen bat heltzen da anekdota-mailara, baina bizipen latz horiek utzitako arrastoak ez ditu astitzen euskal eleberrigintzaren zutabeak.

Giltz-Hitzak: Historia eta Eleberria. Eleberri errealista. Iraultza noblekoa. Euskal eleberria.

La novela inaugura el siglo XX sumergiéndose en un proceso de subjetivización y antirrealismo. Tras la primera Guerra Mundial acentúa estas características. El mundo ha cambiado, también la novela. Sin embargo, el temblor que azotó los cimientos de la novela realista no llegan a la vasca. La narrativa vasca, lejos de la crisis, asentándose en un mundo firme y con estrellas fijas en el firmamento, se mantiene totalmente ajena a esta revolución novelesca.

Palabras Clave: Historia y novela. Novela realista. Revolución novelística. Novela vasca.

Le roman inaugure le XXIème siècle dans un processus de subjectivité et d'antiréalisme. Ces caractéristiques se sont accentuées après la Première Guerre Mondiale. Le monde a changé, le roman aussi. Cependant, le frisson qui a manqué les ciments du roman réaliste n'a pas atteint le roman basque. La narrative basque, loin de la crise, se fondant dans un monde ferme et étoilé, se tient totalement en dehors de cette révolution du roman.

Mots Clés: Histoire et roman. Roman réaliste. Révolution de la littérature romanesque. Roman basque.

“Gerra irudiak Euskal Herriko idazleengan” izenburua daraman ikastaroan parte hartzen ari garenez, ezin ukatu ahal izango dugu literatur gertaera –gertaera historikoa harremana, izenburua bera baita bi jazoerak lotzen dituena. Dena den, aurrera jo baino lehen, aitor dezagun loturak ez digula inolako estuasunik sortzen, oinarri sendoen gain eraikitako zubia delako, zubi horretan erreparatu nahi izan ez duen joera teoriko-kritikorik egon bada ere literaturari buruzko azterketetan.

Zinez, literaturaren izaeraren mugaketak lortu dituen emaitzei zuzendutako begiradarik arinenak agerian uzten du errealtatea –literatura edo mundua– literatura harremana aztergaiak emandako ondorioak ez direla unibokoak: islatu, erretratatu, aurkitu, berraurkitu... mundua ukatu, edo munduaz hitz egin irakur daiteke. Bada alderik literaturan irudien bidez adierazitako edukin ideologiko bat ikusten dutenen eta arte hutsa, edertasun hutsa izan behar duela defendatzen dutenen artean, bi jokabide kontrajarri aipatze arren. Bada alderik bere marfilezko dorrea eraikiz isolatu den artistaren eta konpromezua hitz giltzarritzat hartu duenaren artean. Bada alderik bizitza historiko eta kolektiboarekin lotura nabarmenik gabe, autonomia artistiko absolutua erdiestea bilatu dutenen eta beren orainaldiko errealtate konkretuari, bizi dituzten zirkunstantzietan lotzea bilatu dutenen artean. Azken batez, literatura -errealtatea harremanaren aurkezpena hitzen batek menderatzen badu, hitz hori ANIZKUNTASUNA hitza da. Koordenada historikoen aurrean idazleak erakutsi duen jarrera ihes egiteirik bilatuenetik konpromezurik (modu desberdinetan ulertua, jakina) hertsienara doan tarte luzean lekutu da. Eta praktika literariotik literaturari buruzko azterketara igarotzean ez da aldaketarik somatzen gai honen inguruan: literaturaren gainean egindako gogoeten fruituek tonalitate kontrajarriak erakusten dituzte mutur batean ala bestean kokatu diren adierazpenean; izan ere, autonomia osoena aitortzetik gertaera historikoen menpe jartzera heltzen dira nola aurreko mendetan¹ hala gurean. Errusiar Formalismoak eta garaikide zitzaion marxismoak planteamendu arras desberdinak egin zituzten: formalistek prozesu literarioa indar sozialetatik berezirik dakusate, marxistek, ñabardura gehiago edo gutxiagorekin, literatura bizitzaren ispilutzat jotzen dute. Jakina, literaturari buruzko ikuspegiari hertsiki lotuta eredu kritiko desberdinek ez diote arreta berbera eskaini errealtate - idazlana harremanari. Abiapuntutzat hautatutako ikuspegiaren arabera disziplinen bat, –historia, hizkuntza, soziologia, psikologia...– laguntzaile harturik hurbilduko da kritikoa bere eginkizunera, baina laguntzaile-aukeraketa ez da ekintza inozoa, aitzitik, literatura ulertzeko modu bat, literaturari buruzko irizpide-multzoa du oinarrian eta, ondorioz, harreman batzuk dira aztergune bihurtzen direnak: idazlearen psikea - idazlana harremana izango da edo idazlana osatzen duen hitz-orearen antolaketa edo... Eredu kritikoen barrutiak erakusten duen anizkuntasunean tarte zabalaren jabe dira poema, kontaketa edo drama bere testuinguru historiko-sozialean txertatzea bilatzen duten joerak. Literatur gertaera bereziki gertaera historikotzat jotzeak idazlana lantze-unearekin bateginik, sorrera-garaiaren argitan aztertzea dakar eta adierazten duen islapen edo proiektio sozial, politiko, ekonomikoa... interpretazio-mailara eramatea.

Literaturari buruzko gogoetak eta eredu kritikoen alorrak ez-ezik literaturaren historiak berak ANIZKUNTASUNA erakusten du idazlana - historia harreman hau planteatzean. Har dezagun, adibidez, erakuskari gisa, literaturaren historien aldizkatzea. Aldia mugatzeko irizpide ugari erabili izan da: kronologikoa, soziologikoa, filosofikoa... baita politikoa ere. Irizpide politikoarentzat, historian emandako jazoerarik garrantzizkoenak dira aldiak bereizteko muga-

1. Harako De Bonald-en “literatura gizartearen adierazpidea da” edo Hipólito Taineren ikuspegia lekukotzat: “Las producciones del espíritu humano, como las de la Naturaleza, no se explican si no es por el medio donde se producen”. TAINÉ, Hipólito: *Filosofía del Arte*, Editorial Iberia, Barcelona, 1960, 10. or.

riak jartzen dituztenak. Urrutirago joan gabe, gure artean ezagunak dira Trentoko Kontzilioa, gerrate karlistak edo 36ko gerra euskal literaturaren historian aldiak ezartzeko mugarri gisa.

Idazleen jarrerak eta beren sorkariek bultzatu dituzten maila desberdinetako azterketek, norabideren batean planteatu dute literatura - historia (gizartea) harremana. Noski, ez da berdina aztergune bihurtzea ala albokotzat jotzen den jakinminaren asegarri erabiltzea, baina lehentasuna kendu zaionean ere, nekez ukatu da harreman hori literaturaren azterketako zeinahi adar dela. Soziologiaren eskutik ibiltzeko zaletasun-izpirik erakutsi ez dutenengan² beraiengan ez da falta aitorpenik:

“Pero, además, la literatura ‘representa’ la ‘vida’; y ‘la vida’ es en gran medida, una realidad social, aun cuando también hayan sido objeto de ‘imitación’ literaria el mundo natural y el mundo interior o subjetivo del individuo”³.

Literaturaren historiak planteatzean bertan, aldia mugatzeko irizpide literarioak erabili beharraren premia aldarrikatu eta irizpide politikoen ahulezia salatu denean ere, ez da ukatu aldaketa sozialek egitura literarioen itxuraldaketan duten eragina. Begi bistakoa da, ez dela maila berekoa literatur korronteen sorrera-amaierak gertaera sozio-politikoei estu-estuan lotzea eta gertaera horien eragina literaturgintzan onartzea.

Berreskura dezagun bada errealitatea-literatura harremana mugatzeko arestian erabili dugun ANIZKUNTASUNA esanahi mugagabekoa eta aitor dezagun literaturaren izaeraz eta egitekoaz batetortzerik ez egotearen ondorio soil a besterik ez dela. Nolanahi ere, adostasunik ezak ez dakar ukazioa baizik eta kokagune-aldaketa: erdigune izan ala, gehiago edo gutxiago, alboko izan.

Literatur idazlana, edozein giza sorkuntza bezala, ibilbide historikoaren une batean, koordinada historiko batzutan sortzen da. Arte-lan oro denbora eta zirkunstantzia jakin batzutan sortu du gizakiak. Gizabanako baten irudimenetik erne den produktua izan arren, erabat pertsonala den prozesu sortzaile baten emaitza, garai bat ere ematen du aditzera sorkari literarioak. Alabaina, ukazina da beste zenbait gertaera historikorekiko alderaketan bere nortasun bereizlea erakusten duela. Poemak historia izatea utzi gabe historia gainditzen du.

Poema, kontaketa edo drama osatzen duen hitz-orea garai historiko eta lekugune geografiko mugatu batekoa da, baina aldi berean bere erabilera literarioak gainditu egiten ditu muga horiek. Gertaera historikoa izaki, aldi berean historiaren ukatzaile bihurtzen da. Historian sortua, ibilbideak ez du hilerirratzen, aitzitik, beti berdina mantenduz eta etengabe itxuraldatuz, heriotza saihestu eta piztea lortzen du.

Nortasun berezi honek, historiarekin gordetzen duen itxuraz behintzat harreman paradaxiko honek kontrako ikuspegiak eragin ditu: arte-lana historiaren aurkako erreboltatatz jo da, honen ondoan, ordea, Octavio Paz-ek, esate baterako, poema berez bi bider dela historikoa dio. Batetik, data jakin batzutatuko gizarte eta gizaki baten produktua delako; bestetik, ezin-bestez historian lekturirik dauden beste garai eta gizaki batzuegan hezurramituz bakarrik bizitza hartzen duelako⁴.

2. “Pero la literatura no es sucedáneo de la sociología ni de la política. Tiene su propia justificación y finalidad”. WELLEK, René; WARREN Austin: *Teoría literaria*, BRH, Editorial Gredos, Madrid, 1974, 4ª edición, 2ª reimpresión, 131. or.

3. WELLEK, René; WARREN Austin: *Teoría literaria*, 112. or.

4. Ik. PAZ, Octavio: *El arco y la lira. El poema. La revelación poética. Poesía e historia*, Fondo de Cultura Económica, México, 1956, 226. or.

Iharduera literarioak beste kultur iharduera edo giza ihardueretara ezin murriz daitekeen garapen autonomoa duela abiapuntutzat eraikiz hurbilduko gara ikastaroa lantzen ari den gaira, baina, oso agerikoa izaki, literaturaren alderdi historiko eta soziala inondik inora ukatu gabe: idazlea gizartean bizi da, koordinada sozio-historiko batzutan txertaturik bere espe-rientzia dakar, bizitzaz duen ikuspegia azaltzen du, bizitza errepresentatzen du -bere osota-sunean ez bada ere-, publiko bati zuzentzen zaio eta faktore sozio-politikoek egitura literarioen aldaketan eragina dute.

Literatura - historia harremanari buruz maila orokorrean eginiko azalpen laburbildu hone-tatik garai konkretura jeisteko tenorean ere ezin zehaztasun handiagorik eskaini. Baina, orain-oraingoz, has gaitzen baiezpenekin, jarraian baiezpenak leunduko dituzten ñabardurei deitzeko. Gerrek eragingo dute literaturan, urte latz horietako jazoera larriak ezin igaro zitez-keen adierazpen artistikoan arrastorik utzi gabe. Garai honetako literatur idazlanek maila anekdotiko-mimetikoan erakus zezaketena albora utzi eta lantze-moduari so, lehen mundu-gerraren amaierako lehen urteek asmazio-ugaritasun eta berrikuntza ausartik ekarri zutela azpimarka daiteke: "el período más fértil, más rico en innovaciones literarias y exploraciones estéticas"⁵ bezala mugatzen du Guillermo de Torre 1918-1939 aldia. Aurrekoengandik jaso-takoaren gaitzespenarekin batera inspirazio-langai edo motiboetan nahiz berauek aditzera emateko eran ildo berriak irekitzeari ekin zioten. Aitzindaritzaz bereziki poesiarik dagokio. Poesian atzemandako sentimentu, estilo-ezaugarri, adierazpen-modu berriak, beranduago nabariago eta agerikoago egin ziren hartzailego zabalagoetara heltzen diren generoak bide, eleberria edo antzerkia, hain zuzen ere. Berrikuntzak menderatzen du lehen mundu-gerraren amaiera. Berrikuntzak errotuz, bestelako jarreraz datoz bigarrena isildu ondorengo lehen urteak: eskola literario edo estilo artistiko berrien sorrera baino gehiago, aurretik zeuden ele-mentu guztien finkatze eta hedatzea ekarriko du.

Esan bezala, eleberria zertxobait berankorragoa izango da eraberrikuntza sakonetan sartzeko orduan, 1920-50 urteen artean hezurramituko baita eleberriaren lehen itxuraldake-ta, lehen iraultza⁶. Ezin, ordea, baiezpena bere horretan utzi, ñabardurarik erantsi gabe; izan ere, literatur egituren aldaketa, gertaera historiko konkretu bakar batera mugatzeak, -garran-tzitsua eta eraginkorra izan arren gertaera hori- edo kausa-efektu harreman mekaniko hutsa ezartzeak bi jazoeren artean errealtate literarioaren konplexutasuna sinplifikatzeko eta murrizteko arriskua zelatan du. Ñabardura ez da zuhurtzia neurrigabearen ondorio. Literaturan aldaketak ez dira ematen gauetik goizera. Lehenaldiarekin etetea ez da batpate-koa izaten. Aldiak bereizten dituen data konkretuari balio erlatiboa, testimoniala, sinbolikoa eman dakioke, baina bi lur-sail banatzeko jartzen den mugarriaren kokaleku finko eta mugie-zinik ez du. Egunentziarekin gertatzen denaren antzera difuminazio-tarteak daude.

Lekutu berri dugu eleberriaren lehen iraultza 1920-50 urteetan. Hala ere, lehen mundu-gerratearen amaierak aldi berri bati sorrera ematen diola gaineratzerik helderik ez dago. Gertaera politiko honen ondorio hutsez ez da hausten aurreko eleberrigintzarekin. Ez, XIX. mendeko eleberrigintzaren euskarriak, zutabeak eta mundu-ikuskerak aurretik jarri ziren kolo-kan. Mundu egonkor batean bizi eta bere adierazpen zen eleberri errealistaren oinarri tinkoak lurrikarak astinduak zituen.

5. TORRE, Guillermo de: *Historia de las literaturas de vanguardia*, Ediciones Guadarrama, Madrid, 1965, 19. or.

6. "La primera metamorfosis de la novela adquirió estado de ciudadanía entre 1920 y 1950" (17. or.). Eta aurre-raxeago: "Esta revolución en la estructura de la novela y en su música interior fue cuajando entre 1920 y 1950 en grandes obras literarias". ALBERES, René-Marie: *Metamorfosis de la novela*, Taurus Ediciones, Madrid, 1971, 17-18. orr.

Gatazka eta iraultza artean bada ere, euskarri sendoak zituen mundua eraikia zuen errealismoak; neurri handi batean, mundu lasaia, oraindik egia absolutua, unibertsala eta gizaki gutzientzako baliagarria zena erdiets zitekeela uste zuena. Bizileku sendo honen zimenduak kraskatzen dituen ez da mundu-gerra. Hori bai, gertaera honek areagotu egingo du haustura.

Mende-hasieraz gerotzik subjektibizazio eta antierrealismo-prozesu batean barrena amildua zen eleberria, lehen mundu-gerraren ondoren setati azpimarkatzen joateko ezaugarriok. Aldaketaren kronologia egitea erraza ez den arren, eleberri errealista irauliko zuten zantzuak mende-mugan bertan jadanik atzeman zitezkeela baieztatu daiteke, leherketa-garaia ukatu gabe: 1920tik 30era doan hamarkadan helduko da eleberrira itxuraldaketa nabarmenena, lehen mundu-gerraren ostean, hain zuzen ere.

Mende honen bigarren hamarkadak errealtatearen berreraikuntza izan nahi zuen eleberria, ausardia handiarekin erretratu sozial nahiz psikologikotik askatuz, aztikeria huts bihurtzen du. Eleberriak errealtatearen aierupen leial eta ulergarria izatea laga du beste zerbait ekartzeko. Errealismotik urrutiratu, poemara itzuliz adierazi du eleberriak gizarte modernoaren krisia. Octavio Paz-en baieztapena da⁷, ildo berean kokatzen diren beste askoren artean. Nobelarekiko ikuspegi "inpresionistak", "subjektibistak", "fenomenologikoak" ordezkatu du aurreko ikuspegi "objektibista", kanpoko mundua irudikatzen lehiatzen zena. Testu-tiporik librean bere malgutasun ikaragarri horretara joz, "subjektibizatuz" erantzuten du, literatur produktzioa generotan sailkatzea eta sail horiek deskribatzea bilatzen duten azterlariengizuna zailduz edo eragotziz. Ez da harrigarria, gero, genero mugagaitza bezalako mugaketa mugagabeekin etsi behar izatea. Eleberriaren ibilbide askearen ondorio dira, ibilbide aske hori izan da zehaztasun apur bat gehi dezaketen xehetasunak eransteke modua suntsitu duena.

Mundua aldatu da, baita eleberria ere. Nobelak ezin ziezaiokeen ihes egin gizartearen egoera, bilakaera eta ikusmoldeari, bera izaki gizakiarengandik at gelditzen den kanpoko mundua hausnartu, dokumentazio-leku bihurtu eta modu sinboliko eta mitiko batez adierazten zuena. Horrela zen behintzat errealismo garaian eta orain, ezin geldi zitekeen zirkunstantzia egin gabe aldaketa sozial eta kulturalen aurrean.

Ukaezina da Balzac-en eleberriak "ni" batek, "ego" batek gurutzatzen dituela hasieratik bukaerara. Uneoro agertzen da. Pertsonaiei buruzko komentarioak egiten ditu, gertaerei buruzkoak... Hala ere, bere garaiko gizartearen idazkaritzat jo zuen bere burua⁸. Hau da, bere aburuz, "besteetaz" ari zen. Ez "ego" batez, baizik eta honengandik kanpo gelditzen diren haiez. Alegia, hirugarren pertsona gramatikala zuen oinarri, ez lehena. Eta zer da bada *La Comédie humaine* gizarte baten historia, kronika ez bada? Balorazio egoki batetik urrun legoke, adibidez, Balzac-ek *La Comédie humaine* bere garaiko errealtatea mimetikoki islatzen zuen argazki bat atera zuela esatea, hein berean, ordea, balorazio egoki batetik urrun legoke, *La Comédie humaine* bere "ni"ak soil-soilik, bere irudimen hutsak egosi zuela uste izatea.

Baina munduan kokatzeko eta berari ikusteko modua kolokan jartzean eta mundu berri batera igarotzean, mundu berri hau adierazteak nobela berria eskatzen du.

7. lk., aip. lib., 226. or.

8. "Balzac, (...) se definió como el *secretario* de la sociedad francesa de su tiempo -mundo de vicios y de virtudes, de pasiones y de luchas, del que él, como *secretario* establecía el inventario minucioso". AGUIAR E SILVA, Víctor Manuel: *Teoría de la literatura*, BRH, Editorial Gredos, Madrid, 1975, 87. or.

Aurreko mendeko mundu lasai, egonkor, gizakiaren neurriera egindako hura, oroitzapena baino ez da. Tradizioa hil da, sinismenak hautsi. Gizaki bakoitzak bere egia du, bere jokabide-arauak. Sortzaileak moralaren barrutiko ertzak eta kokkak hausnartzeari, kezkak sortarazteari, bizilekutzat duen mundua epaitzeari, mugatzeari, edo mundu horren aurka aritzeari uko egin dio, esteta gisa, mundu hori ikusteko eraz arduratzeko. Ortega "artearen deshumanizazioa" deitu zuen. Mundua atzemateko moduan oinarritzen den gizakiaren artea da. Euskarri sendoak zituen, egonkorra eta lasaia zen mundutik mundu kezkagarri, ezegonkor, arriskutsu baterako jauzia burutu da. Lur irmo eta finkoan oina jarri nahi duen gizakiari iraulita datorren eleberri honek iragartzen dion nobedadea izutzekoa da: lurra urtu da, hondarrak mugikor izatera igaro dira, zolua zingira besterik ez da. Ideiak ez daude argi eta garbi, aitzitik, erabat nahasirik. XX. mendeko gizakiak ideia nahasiak dituzte, ideia nahasiez baliatuz egingo dugu eleberria. Mundua azaltzea ezinezkoa da, argitasunen bat eskaintzea amets hutsa. Honenbestez, eleberrigilearen eginkizuna ez da sorkariak dakarren mundua iruzkintzea, gutxiago, berriz, azaltzea, baizik eta aurkeztea. Norbaitek uste bazuen Flaubert, Maupassant... eta beren garaikideek giza izaera bere konplexutasun osoan adierazia zutela, ekarri berriek iturria agortu gabe zegoela agerian uzten dute: beren idazlumak iragazten duen begiradak alderdi ezkutu finagoak eriden ditu.

Eleberria, jada ez da kontaketa, ez ditu giza jokabideak deskribatzen, ezta gizartearen azterketarik egiten ere. Historia izatea utzi du sentzazio, inpresio eta esperientzia batzuen amalgama bihurtzeko. Mataza baten haria jarraitzen zuen eleberri errealistaren irakurleak, orain, haririk gabe, errari ibili beharko du ametsetan bezala (edo bizitzan bezala). Errealismo garaiko pertsonaiak beti izaera mugatukoak ziren, "errealitate" mugatu batek "koadroaren hondo" eratzen zuen eta hondo horretan pertsonaiak erliebea hartzen. Bukatu da; ez dago halakorik, eleberri berriak ez du kontaktzen mundu jakin eta mugatu batean garatzen den heroea nobelesko baten historia. Eleberria prosa poetiko eta antinobelistikoa bihurtu da, heroea antiheroe. Kafkaren eleberrietan non, nor galdetzaileek ez dute erantzunik jasotzen. Ekitzen garapen-lekua non kokatzen den jakiterik ez dago, protagonista nor den jakiterik ez dago. Eleberri errealistak nork, zer, noiz eta non egiten zuen xehe-xehe azaltzen zuen. Koordinada narratiboek leku-denbora jakin eta ñabarduraz betetakoan kokatzen zuten zigilu bereziz horniturik zetorren gizakiaren abentura singularra. Orain, berriz, abentura amaitu da, historia desegin, pertsonaiaren nortasun berezia eta bere historia eraikitzen zuten leku-denborazko zirkunstantzia ñabarrak ahitu dira. "Ongi eraikitako" eleberria idortu da, "ekintza-unitatea" hautsi. Ondo paratutako kontaktak gogoko dituenak eleberri hauetan ikuspegi "nahasia" baino ez du aurkituko. Ez da harrigarria. Lehen kontaketa-zalearentzat idazten zen. Irakurleari ulergarri egiteko asmoarekin testuraten zen historia. Bestelakoa da jarrera berria: ez da idazten irakurlearentzat, kontaketa osoa menderatzen zuen pertsonaia ikustezin horren ezabaketaren ordua da. Kontalariak tartean sartzeari, azalpenak emateari, azterketak burutzeari uko egiten dio. Isiltzea erabakitzen du. Pertsonaia gonbidatzen du hitz egitera eta honen ahotsa bakarrik entzuten da. Pertsonaiak, ordea, ez ditu, jada, bere pentsamenduak igortzen baizik eta inpresioak, sentzazioak. Sentzazio subjektiboaren mundu konplexuan murgiltzen gaitu, baina ez dugu kontalaririk sentzazio, sentimentu eta ideia hauen ordena arautzeko eginkizuna bere gain hartzen duenik.

Leku singularra ez-ezik, denbora kronologikoa ere desagertu da. Eleberri errealistaren denbora kronologikoa, kanpoko kronologia baten legeen azpian garatzen zen denbora hura, kontzientziaren barneko mugimenduen eta esperientzien menpe jarri da. Denbora objektiboa, kanpoko errealitate objektibo batean gertatzen eta neurtzen dena, kronologikoa, denbora subjektiboak, barneko mundu subjektiboan gertatzen denak, psikologikoak ordezkatzeko du. Proust-en *A la recherche du temps perdu* nobela-zikloa, esate baterako, denboraren tratamendu berri honen eredu da, denbora hau da protagonismoa erdiesten duena.

Jarrera eszeptiko batetik edo zuhurtziak eraginda besterik gabe, nor bere buruari galde diezaioke iraultza honen azpian ez ote dagoen teknika batzuk azken muturreraino eramana nahia, jolas hutsa izatea, ariketa bitxi batzutan gozatzea, trebetasunen batzuk erakusteko gogoia edo asmazio distiratsutzat jo eta imitatzen saiatzea... Ez dirudi halakorik dagoenik. Ez dirudi, adibidez, sortzaile baten ondotik datozen jarraitzaile batzuen fruitu denik. Exenplu gisa, barne-bakarrizketaren ibilbidea har daiteke⁹. Baliapide honetara jotzen duten eleberrien argitalpen eta itzulpen-urteen hurbiltasunak uestezko kopiatzearen aukerari tarte txikia lagatzen diote, hain txikia ezinezko ere bihurtzen dutela. Barne-bakarrizketak eleberri klasikoak mintzairaz egiten zuen erabilera hausten du. Hedapenerako jarraitzaileak aurkitu zituen asmatzaile bikain baten aurrean ote gaude? Kronologiak jarraikotasuna baino gehiago aldi berekotasuna erakusten du eta gertaeraren esanahia azpimarkatzen literaturaren historian: elkar ia ezagutzen ez duten idazleak bat etorri dira¹⁰. Horrenbestez, barne-bakarrizketaren erabilera ez da zabaltzen norbaitek trebezia handiarekin zuzendutako edo ezarritako moda literario bati esker. Giroan zegoen eta bigarren hamarkadan zenbait idazleri dei ozena egiten die, beren eleberritan ezartzera heltzerainokoa.

Mende-hasieratik zetorren dardararen emaitzak dira, mundu-gerrek erretako sentimenduek areagotuak. Gu, berriz, ez gintuen dardarak harrapatu. Zertan da, bada, euskal eleberrigintza? Mende-mugaren ondotik azaleratzen den krisitik urrun, mundu egonkorrean oinak dituela eta ortzian izar finkoak, arrisku orotatik babesturik, ez du ukitu ere egiten. Anekdotak edo fabula-mailan bi mundu-gerren eta 36koaren oihartzunen bat helduko da¹¹, baina bizipen latz horiek utzitako arrastoa testuraturatuko langaien esparrura mugatuko da. Alegia, langai horiek lekugune narratiboa den transformazio-toki horretatik igaro ondoren adierazten duten munduak XX. mende honen lehen erdiak jasan dituen gertaera historikoek bultzatutako krisiak ez duela eraginik izan agerian utziko du. Baiezenak Mitxelenaren iruzkin bat jasotzera garamatza. Txillardegiren *Leturia-ren egunkari ezkutua*-ri hitzaurrea egitean eleberri honen laualdiak, lau tempoak, direla eta Lizardiren "Urte-giroak" (lau sasoi, halaber) gogoratzen ditu eta Txillardegiren eta Lizardiren mundua alderatzen:

"Ezta zalantzarik Lizardi'gan. Pozik dago biziak eskeintzen dionaz eta fedek agintzen dionaz. Alferrik bilatuko duzute beragan Europa eta mundu guztia dardarazten asia zen lur-ikararen berririk. Dardarak ezkinduen artean ukitu edo, ukitu baginduen ere, begi belarri erneak eta arima urduria bear ziren zirrara sumatzeko. Bizi-leku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez-ezik, etzen paretetan artesiturik ageri. Axalean zertxobait aldaturik ere,

9. Oihartzun handirik lortu ez duen Edouard Dujardin izeneko eleberrigilearen *Les Lauriers sont coupés* (1887) eleberrian azaltzen da lehen-lehenik barne-bakarrizketa. Erdi-ekutuan gelditu den aitzindaria besterik ez da; izan ere hurrengo mendean datozen eleberritarak heltzean balioztatuko da mintzairaren erabilera klasikoaren iraultketa hau.

10. Kafkaren *Die Verwandlung* (*Itxuraldaketa*), 1912an idatzia, 1915ean argitaratzen da; 1914an Joycek *Dubliners* argitaratuko du eta 1922an *Ulises* baina 29rarte ez da frantsesera itzuliko. *Dubliners* 1926an itzuli zen. Urte berean, 1926an, Estatu Batuetan *Ulises* inprimatu zen egilearen baimenik gabe. Faulkner-en *The Sound and de Fury* 1929koa da. Kontrabandoz bakarrik Joyceren liburuak jasotzen zituen Ingalaterran, Virginia Woolf-ek *Jakob's Room* argitaratu zuen 1922an, baina 1925rarte itxaron behar izan zen *Mrs. Dalloway* argitara zedin. Kafkaren *Itxuraldaketa* 1928an itzultzen da frantsesera eta 1933an *Der Prozess* (*Prozesua*).

11. Narratibagintza dugu mintzagai eta ez kazetaritza. Genero edo testu-tipoen artean muga finko eta zehatzik ez dagoela begi bistakoa den arren eta kazetaritzako zenbait idazlari eleberri batzuei baino konta-jario malguagoa darien arren, ez ditugu hemen gogoan hartzen Jean Etcheparek eta Jean Elissaldek lehen mundu-gerraren gainean burututako kronikak. Ik. CHARRITON, Piarres (Ed.): *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, III, Kazetaritza (A) (1903-1915)* eta *IV, Kazetaritza (B) (1916-1935)*, Elkar, Donostia, 1988 eta 1992. Edo ELISSALDE, Jean: *LVII.a gerlan*, Alberdania, Donostia, 1995, (Patri Urkizuk prestatutako edizioa).

bizimodua, uste, iritzi ta sinesteak oiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe bereganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala”¹².

Lizardiren “Urte-giroak” 30. hamarkadan argitaratzen da. Ordurako lurrikararen dardara nabarmena izan arren, ez zuen harrapatu. Ez 30. hamarkadan, ez lehenago, ezta ondorengo bi hamarkadetan ere, helduko da euskal literaturara lurrikararen oihartzunik. Lur irmo eta finkoan bizi izaten jarraitzen du euskal idazleak eta barruti honetan, jakina, euskal eleberrigileak.

Mintzagai izan den eleberritxuraldatuari aplikaturiko ezaugarriren bat egotzi dakioko XX. mende honen lehen erdiko euskaldunari: antinobela izatearena, ezinbestean. Biei egokitzen zaie, baina ez modu berean. Biei egokitzen zaie errealismoa erreferentzi puntutzat hartzen den neurrian. Haatik, bata errealismotik igaro ondoren aldendu egiten da, besteak, berriz, ez du ezagutu errealismoa. Eleberritxurista eleberritxurista erredutzat jotzen den heinean, biak erredutik urrutiratzen dira eta nobela deitzen bada errealismo garaikoa antinobela dei daitezke, erreduren hausketa-moduak zer-ikusirik ez duen arren. Erredutik urruntzean dago bakar-bakarrik ezaugarri amankomuna, izan ere, mintzagai izan den iraultza horretan eleberritxurista mundu jakin eta mugatu batean garatzen den heroe nobelesko baten historia izatea uzten badu, inpresio batzuen amalgama bihurtzeko, garai bereko euskal eleberritxurista heroea mundu jakin eta mugatu batean lekutuzera ere ez da heldu. Pertsonaia leku-denborazko koordenada orokorretan kokatzen da eta bere jokabideen konplexutasuna deskribatu ordez, ideia batzuk hezurramitzeko bitartekotzara eramaten da. Klaseen, tipoen mundua da eta ez gizabanakoena. Abstrazio-mailatik jeitsi eta objektu berezi, partikular, konkretuena oraindik eriden ez duena. Zirkunstantzi berezitan bizi diren gizabanako bereziek eraikitzen zuten mataza eleberritxuristatxurista, nork - zer - noiz - non galdetzaileei xehetasun eta ñabarduraz beteta erantzuten zien; eleberritxurista hau iraultzen duenak ez daki erantzuten, edo ez deritzo, ez dakusa erantzun behar duenik eta garaikide zaion euskaldunak, berriz, modu orokor batez testuratzten ditu.

Euskal eleberritxuristak bere sorreratik bertatik erakutsi duen jarrera da. Txomin Agirreren *Auñemendiko Loreak* koordenada narratiboak indibidualizatzeari ihes egin zion. Gertaera historikotan, edo ustez historikotan behintzat, bilatu zituen langaiak. Langai horiek berbaldiratzeko, ordea, ez du pertsonaien notatasuna, beraien kualitate, bizio eta mugak, xehetasunez itxuratutako zirkunstantzi historikotatik batzutatik ermetzen aurkeztuko. Txomin Agirrek ez zuen VII. mendeko Euskal Herriko gizartearen kronikarik egin, garai horretako giza harremanak aztertu; berak sorturiko pertsonaiak ez dira kokatzen pil-pilean, irakiten, astinaldi sakonen menpe dagoen giro historiko batean. Konplexutasuna sinplifikatu egiten da gardentasunean irabazteko. Baina mende-mugatik lehen mundu-gerraren amaieraren ostean argitaratzen den *Yolandara* (1921) ez dago alderik. Piarres Lhanderen eleberritxurista XVII. mendean kokatzen duen maitasun-istorioan ez da atzematen aldaketarik egituratze-mailan.

Gerrek ez dute bultzatzen funtsezko berrikuntzarik, ez 36koak, ezta bigarren mundu-gerrak ere. Jon Etxaideren *Alos-torreak* (1950) ez dakar X-XI. mendeen arteko gizartea, garai horretako jauntxoaren arteko tirabirak, aginte-egarriak, adiskidetasun edo etsaigo-harremanak. Zerbait uko egiten bazaio gertaerak kokatzeari da, dela maila historikoan, psikologikoan edo soziologikoan. *Alos-torreak* grinen agerleku izango da, grinen indarrak jazoera bortitzak, gogorak eragingo ditu, arazo eta gatazkek tentsio ikaragarria sortuko dute, baina une batez ere ez da testuratzten nola heldu den egoera horretara. Nola eta zergatik iritsi da Otxanda ama-ordea Usoa hainbeste gorrotatzera? Nola eta zergatik doa Beltran jauna, kartzelatik irten ondoren, nahigabe ugariren iturri izan duen Alos torrera eta ez oso bestelakoa den portaera

12. MITXELENA, Luis: “Sarrera-itx batzu” in TXILLARDEGI, (J. L. Alvarez): *Leturia-ren egunkari ezkutua*, Leopoldo Zugaza editor, 2. argitarapena, Durango, 1977, 12. or.

erakutsi duen bere alaba Usoaren Bidaniako ezkontz-etxera? *Alos-torrearen* kontalariarentzat Otxandaren gorrotoa bere izaera "zakarra, garratza, makurra, biozkabea, bekaitz eta zitalkeriz betearen eta Beltranek Usoarentzat zuen maitasunaren ezin-eramanaren ondorio da¹³. Beltran Bidaniara ordeztu Alos torrera abiatzea, berriz, galdera hutsa da:

"Zerk eragin ote zion bere bizitzako azken aldian Alostorre'ratzeko erabaki mingots au artzea? Galdera gaitza orainartekoan erantzuten. Bere emaztearen errugabetasun sinistu ote zun? Eta beraz, Usoa erudun jo? Edo-ta bere eriotza urbil nabaiturik etxekoe-kin onezkoak eginda aurkeztu nai ote zun Jaungoiko'ren aurrean?"¹⁴.

"Nola" horrek bi erantzun-mota jasotzen ditu, bata izaera-modua, bestea ez-jakintasun-an ezkututzen da. Baina izaera-modua kalitate batzuen izendapenera mugatzen da. Otxandari ez zaio aukerarik ematen nola heldu den ezaugarri horiez horniturik egotera azal dezan, nola eta zergatik joan den zakartzen, garratzen, zitaltzen...erakus dezan. Hau da, kalitate horiek ez dira testuratzten bizipenen argitan, zirkunstantzi, esperientzi batzutatik erntzen doazen kalitate gisa, baizik eta bere baitan dituen kalitate moduan. Ez da eginaz doan nortasuna. Horrelakoa jaioko zen edo... Beltran Bidaniara ordeztu Alos torrera abiatzearen arrazoiak hausnartzean, berriz, kontalari orojakile honek ez du nahi izan hartutako ikuspuntuak ematen zizkion ahalmenez baliatzerik eta batpatean gizaki arrunt eta soil bihurtuko da bere jakite-gaitasuna murriztuz. Hitz batez, gertaerak ez dira aurkezten poliki-poliki itxuratuz joan den gatazka edo tentsio baten ondorio bezala, zirkunstantzia, gogoeta, bizipen eta abarren argitan ulertzen diren jokabide bezala. Arazoa, gatazka nola doan sortuaz xehe-xehe erakusteari uko egiten dio, pertsonaiak nola doazen eginaz azaltzeari uko egiten dio; ez dago prozesurik, ibilbiderik. Gertaerek dute garrantzia eta ez gertaeren justifikazioek, zuribideek. Jazoera, arazoa, gatazka ez da itxuratzen pertsonaiak bizi izan duenaren, testuinguruaren eta abarren ondorio moduan. Ez dago aringarririk, ez zuribiderik.

Kontalariak gaitzesten dituen gertaerak ekartzen dira, gizarte zorrotz batentzat eta hain zorrotza ez denarentzat ere, arbuigarriak. Txukuntasuna, dekoroa, "bienséance" hori gorde nahia erakutsi duten kontalariarentzat desegoki eta laidagarriak. Lehenaldiko euskaldunen balore moralak goretsi dituen kontaketaen aurrean hobenak salatzen eta agerian jartzen ditu. Lehenaldiak ez zituen bakarrik bizilagun eredugarriak ezagutu. Adulterio, hilketa... "keriarik" ez da falta izan. "Kerien" kausak, ordea, ez dira ikertzen. Gizakia eta beronek bizileku duen gizartea ez dira aztergai. Pertsonaiek ez dute gizaki moduan jokatzeko. Bilakaerak, gogoetak, zirkunstanzien eraginak, gizartearenak... ez du sortzen berbaldirik. Gertaerei ez zaie ematen giza mailako azalpenik, jokabideak ez dira testuratzten bizipenek ekarritako bila-kaera psikologiko baten ondorio gisa. Halabeharrak, berezko izaerak (oso tinkoa sarritan), batpateko iratzarteak, oharretak eta abarrek bultzatu beharko dituzte jokabide-aldaketak.

Eleberri historikoaren barrutia uzteak ez darama berarekin aurkeztutako lerro nagusiak baztertea. Euskal eleberriak gizakia idoro gabe jarraitzen du, bilakaeraren mundua kausitu gabe. Aukera ederra ematen zion R. M. Azkueri lehen mundu-gerrak piztutako sutea itzali aurretik argitaratu zuen *Ardi galduek* (1918) giza psikologiaren uretan murgiltzeko, baina bete-betean uko egingo dio. Emeterio Olazarretak galdutako kristau-fedea berreskuratzea gai aparta zuen bidea nola burutu zuen erakusteko. Ardi galdua artegiratuko den arren, ez dago biderik. Eleberriak ez du testuratzten bidaia hori. Leaburun Aita Mendirik zuzendutako misioak direla bitarteko, batpateko argiak argitu eta artegiratuko du.

13. ETXAIDE'TAR Yon: *Alos-torrea*, Itxaropena, Zarautz, 1950, 21.or. eta 24. or.

14. ETXAIDE'TAR, Yon: *Alos-torrea*, 90.or.

Euskal eleberria zirkunstantzi berezitan bizi den gizabanakoa aurkitu ez duen eleberria da. Halakoa izan zuen sorrera eta gertaera sozio-historikoek ez dute erdietsiko aldatzerik, ez dute, dirudienez, gogoeta eragiteko ahalmenik. Euskal eleberrigilea geldirik dagoen mundu batean bizi da. Horrelakoa da, behintzat, adierazten duen mundua.

Lehen mundu-gerraren amaierak ere ez zizkion kolokan jarri oinarriak. Jean Barbierrek *Piarres* argitaratzen du bi liburukitan, lehena 1926an eta bigarrena 1929an. Lehen liburukia ia oso-osorik ohiturazko koadroen azalpenera mugatzen da, historia baten haria hausteraino helduz ohituren berri eman behar horretan. Pertsonaia protagonistak, Piarresek, ematen dio batasuna, baina haria, jarraikotasunik gabe, kapituluz kapitulu etenaz doa, mataza ahul bat ehotzeko eragozpenak pilatuz. Hala ere, azkenaurreko kapituluan iragartzen den gertaera arriskutsuak, gerrak, Senpereko bizilagunen ohiko bizimodura larritasuna ekarriko du eta, neurri batean, ordurarte osatu den eszena kostunbristen bildumari amaiera jarriko dio. Piarres gerrara doa. Oihanalde eta bertako eginkizunak beste leku eta egiteko batzuk ordezkatzeko dituzte, ia bigarren liburuki osoraino hedatuz Piarresen ibilerak gerran. Paisaiak, bizimoduak ikaragarrizko aldaketa jasan dute, ez horrela Piarresek. Ihesaren aukeraren aurrean bere usteari tinko eutsi eta alemaniarren erasoari guda-zelaian erantzutea erabakiko du. Bizimodu berria ez da lehengoa bezain eroso. Hala ere, oinaze, arrisku, estuasun, zailtasun hauek pertsonaiarengan sor zezaketen barne-egoeran geldialdi handirik ez du egingo kontalariak: une hunkigarri batzutan negarerra heltzen dela esatera mugatzen da. Ez dago errebel-diariak, ez gogoetarik, ez zalantzarik, ez madarikaziorik, ez ernegaziorik... Etsipenez betetako pertsonaiak pairatu egiten du ezbeharrak. Kontalariak Piarres eta bere soldadu-lagunen ibilerak jarraitzen ditu, baina ez bere ahotsean, ez pertsonaiarenean erakusten du zorigaitza, esate hutsera mugatzen da. Gerrari hitz-ore zabal samarra eskaini arren, hitz-ore hori ez da erabiltzen alderdi gizatiar batetik ikusteko. Gerra Piarresentzat parean suertatu zaiolako jasan behar duen eta jasaten duen egoera neketsua da. Ez da, ordea, usteak, bizitza ikusteko modua, sinismenak... kolokan jar ditzakeen gertaera; izan ere, euskal eleberrian gizakia ez da bizi izandakoaren produktu.

Agustin Anabitareren *Usauri* (1931) eta *Donostia* (1932) alde batera utzita ohiturazko koadroen azalpenari ematen dioten lehentasunak historiak eskatzen duen haria asko ahul-tzen duelako eta historia-eraikuntza nabarmenagoa duten haietara joz, hor dago Toma Agirrek gerra-garaian argitaratu zuen *Uztaro* (1937) ordurarteko eleberrigintzaren ajeak bere-ganatzuz: eleberria balore batzuen gordeleku eta gorespen-leku bihurtu, jarraipena lor deza-ten. Gainera, ez da, erdi-ezkutuan zabaltzen den mezua edo ustegabea emana, ez da beste irakurketa askoren artean burutu daitekeenetako bat, aitzitik, oso modu gardenean emana, nahita bilatua. Kontatzen duen historiaren garapenak ondo agerian utzi eta gero ere, amaierara iristean, ez du etsitzen ondorioa hitzez jantzi gabe: "¡Ara nola betikoratzen diran gurasoengandik semeengana eusko-sendiak eta sendi-oiturak!"¹⁵.

Gerra-garaian bertan *Eguna* egunkariaren orrialdeetan atalka-atalka *Loretxo* izeneko ele-berri baten hamaika kapitulu argitaratu ziren¹⁶, "Mendi-Lautak" izenpetuta¹⁷. Egia esan,

15. AGIRRE'TAR, Tomas: *Uztaro. Gure erriaren bizierari buruz, edesti jakingarria*, Editorial Vasca irarkolan, Bilbao'n, 1950, bigarren argitaldaria, 316. or.

16. Ik. *Eguna*, 1937-II-14, 1937-II-18, 1937-II-21, 1937-II-27, 1937-III-3, 1937-III-6, 1937-III-7, 1937-III-11, 1937-III-16, 1937-III-20, 1937-III-21.

17. Nahiz eta Jose Maria Agirre "Lizardi"ri egotzi izan zaion goitizen hau, halaber, zarauztarra zen Domingo Arrutiri dagokio, dirudienez. Goitizen honen identifikazioan sortutako okerrentzat, ik. OTEGI, Karlos (Ed.): *Lizardi. Olerkiak*, Klasiakoak, Elhuyar Kultur Elkarte, Donostia, 1994, XV-XVI. orr.

gerra-garaia ez da sorketarako aproposena. Españaoko eleberririk berak ez zuen, ez fruitu oparorik eman, ezta maila handikorik ere garai horretan¹⁸. Amaitu gabe gelditu zen *Loretzox* antzekoa den zerbait esan behar, dirudienez, ez da maisu-idazlanen ordua, ezta hausturena ere. Folletoi baterako osagai aiposez horniturik dator: guraso karlista aberatsak beren alaba Loretxo Madrillgo udatiar handiki batekin ezkondu nahi luketen arren, honek Yon maite du. Yon, madrildar handikiaren aurrean, langile soila da, Loretxoren gurasoen ideologiaren aurrean, abertzalea. Baina 36ko gerrak atea joko du aurreikusten zen maitasun-istorioaren garapena baldintzatuz. Gerran beren alderdikoak eginiko sarraskiak ikusirik Loretxoren gurasoei aurreko atxekimendu politikoa epeltzen eta hozten joango zaie Yonen alderdia geroz eta gehiago onartzeko, azkenean mutilik egokientzat jo arte Loretxorentzat.

Loretxoren gurasoak bi gazteen arteko maitasun-harremana onartzeko zeuzkaten oztopoak gaintutiko dira. Alabaina, eleberririk ez du hitz-orez jazten nola ematen den bilakaera hori. Yon guda-zelaian den bitartean burutu da aldaketa eta denbora-tarte hori maiteminduek elkarri igortzen dizkieten eskutitzek betetzen dute. Loretxok bidalirik eskutitzetan emandako berrira mugatzen da jarrera-aldaketari eskainitako tartea. Honela bada, bizi izandako esperientzien ondorioz gaintitzen dela gatazka esan besterik ez da egiten, gurasoak barne-prozesua bizi izan nahiz ez izan, hitz behintzat ez da bihurtzen. Ez jarrera-aldaketa egiten joan den bide bezala erakusten da, ez Yonek gerra den esperientzia latz hori nola bizi duen berbaldiratzen da. Beraz, giza psikologiaren barrutian murgiltzeko parada ematen zuten langaiak hautatu arren, alderdi hori ez da garatu nahi izan.

Eta gero isilaldia, harik eta lehiakideen mugetatik kanpo jarraipena ematen hasten zaion arte. Isilaldiak, ordea, ez ditu kolokan jarriko aurreko eleberrigintzaren oinarriak. Gerra-garaia amaitu ondoren, 36koa eta bigarren mundu-gerra, hartuko da berriro eleberria adierazpide. Ekin argitaletxearen eta *Herria* aldizkariaren bitartekotasunari esker, Joseba Andoni Irazustak Buenos Aires-en *Joñixio* argitaratu du, Jean Pierre Iratchet-ek *Antton*¹⁹.

Antton eleberriarren hari nagusia honela laburtzen du Patri Urkizuk: “hiria eta herriaren arteko oposizioa”²⁰. Hari hori ez zaio arrotza euskal eleberrigintzari. Isilaldira heldu aurretik argitaratzen den azken eleberrian bertan, Toma Agirrerren *Uztaron*, oraindik han zegoen. Ez hari-mailan, ez hari hori zuzentzeko moduan egonda etenik. Gerrek ez dute aurreko eleberrien eitea aldatu, gehienez, *Anttonen* gertatzen den bezala, langaien esparruan egingo dute agerreraren bat, zeharka historiaren garapenean eraginez. Hala, bigarren mundu-gerraren deia erantzun beharko du *Antton* protagonistak eta Amerika utziaz Frantziako soldadoekin batera alemaniarren aurrez-aurre jarri. Gerra orok legez zorigailza zabalduko du bazterretan eta, egiak, ezbehar horietako batzuen eragina historiaren harira helduko da: gerran hildako Battitaren andregai Katalinekin ezkonduko da *Antton* -oso modu ortodoxoan, jakina, beharrezko ziren baimen guztiak eskuratu ondoren— eta gosetean bizi den Marixanen semea jasotzeaz gainera, Marixani berari laguntza eskainiko dio. Baina gerrak ez du lortzen ez kontaktaren erdigunea harrapatzerik, ez norabide-aldaketarik ezartzerik. Gerraren ondorioak oreka berreskuratzeko eta tesiak frogatzeko tresna izatera mugatzen dira: nekazal giroan

18. “Sobrevino, pues, la guerra. En los tres años que duró nada notable dio la novela española. La escasa producción recaía, lógicamente, sobre experiencias en el frente o en la retaguardia, marcadas por el tono correspondiente al bando que se atacaba o se defendía”. SOBEJANO, Gonzalo: *Novela española de nuestro tiempo*, Editorial Prensa Española, Madrid, 1975, 37. or.

19. Iratchet-ek *Herria* aldizkarian atalka-atalka emandako eleberria hamarkada honetan bertan argitaratu du liburu gisa Patri Urkizuk prestatuturiko edizioari esker. Ik. IRATCHET, Jean Pierre: *Antton*, Etor argitaletxea, Donostia, 1990.

20. Ik. “Aitzin-solas” in IRATCHET, Jean Pierre: *Antton*, 8.or.

aurkitzen da zoriona, hirian, berriz, porrota. Marixanek -emandako hitza hautsiz- senartzat arbuia zuen Antton Etxebazterreko oinordeko eredu-garriak, baserriak eskatzen zuen etxe-koandre egokia emazte duela, zoriona jadetsiko du. Marixanek gosetea bide ordainduko du ezarrita dauden erregelak irauli izana. Bigarren mundu-gerra langaiaz *Antton* eleberrian barrena egiten den erabilerak nekazal giroa goresteko aitzaki bihurtzen du. Nekazal giroan bakarrik aurki daiteke zoriona. Urrezko erregela hau suetsitu du Marixanek eta gerrak dakar-kion gosetea pairatuz, hiriaren lilurapean gaitzetsi zuen Anttoni janaria eskatuz, emana zuen hitza hautsi izan ez balu ezkontide izan behar zuen Anttoni elikagaia erregutuz hasi beharko du zorra kitatzen. Gerra irakaskuntzaren menpe jarritako bitarteko bat besterik ez da izango.

Bi gerrak, 36koa eta bigarren mundu-gerra, amaitu ondoren bi erbestaldi ekarriko ditu Joseba Andoni Irazustak, bata diru-baliapide urrien ondorio, *Joañixio* (1946), bestea, guda madarikatuak sortua, *Bizia garratza da* (1950). Zeinahi arrazoik eragina dela ere, nekea, sufrimentua, laztasuna eta garraztasuna dario erbestaldiari, baina sentimentu horien indarra ere ez da nahiko izango erbesteratua aztertzeraz igarotzeko.

Orain arteko eleberrietako pertsonaiaz euskal aberriak at ez da egon zorionik. Zoriona erdiesteko ezinbesteko baldintza zen aberri honetako nekazal edo arrantzale-munduan bizi izatea euskal izaera gordeaz. Hemendik kanpo zoritxarreko izango dira pertsonaiaz erbesteturiko horiei suertatzen zaien bezala. Hesi batzuk aurretiaz ezarrita daudenez, pre-misa horiek jarraitu behar dituztenez, beren bizitza beren gogara burutzeko askatasuna falta zaie, gizabanako legez abentura singularrean, berezian barrena murgiltzeko aukerarik ez dute.

Euskal aberriak kanpo ez dago zorionik. Hala gertatuko zaio Joañixiori, baita Andoni Uriaurre eta Ander Zubibururi ere. Beharrak eraginda atera dira bata eta besteak; ajeak eta hondamendia ekarriko die erbesteak. Gerrak ez du kolokan jarri gerraurreko mundu-ikuskeraz, ez du eleberriaren eraikuntzan eragin, ozta-ozta bakarrik helduko da langai izatera. Eleberria ez zen sortu historiak garatzeko leku moduan eta historiak oraindik testuratu gabe jarraitzen du. Euskal izaera, euskara... babesteko bitarteko bihurtu zen lekugune testual hori eta zor horrek hegan egiteko hegala mozten dirau. Kontalari orojakilearen eskutik pertsonaia pre-misa bat ordezkatzeko aitzaki hutsa izango da; irakurketa eskuragarriagoa lortzea, kontaketa-aren egitura bete-betean baldintza dezakeen faktore.

Gerra ez da testua bereganatzera iristen den langaia. Norbaitek esan dezake Jon Andoni Irazustaren *Bizia garratza da* edo Joseba Eizagirrearen *Ekaitzpean* (1948) horietan hor dagoela. Haatik, atzean, eszena-tokiaren atzekaldean dagoen oihala izatetik ez da igarotzen. *Bizia garratza da* eleberriko Andoni eta Ander "guda madarikatu baten ostikadak bializitun"²¹ Ameriketara, baina ia-ia honetan amaitzen da gerrak sortutako konta-jarioa. Beste erreferentzi labur batzuk egiten zaizkion arren, gerrak ez du beteko lekugune narratiboa. Besterik da hona eramaten dena: Andoni eta Ander asetzen ez dituen bizitza erbestean.

Bai, gerra izanda beste norabide bat eraman zezaketen bizitzak lerratu dituenaz. Colombia gerraren ondorio da. Hala ere, baldin eta modu batean edo bestean heriotzean amaitzen diren ibilbide horiekin gerra pairatu zuen belaunaldiaren bizitza errotik moztu eta errari ibiltzera edo zoritxarrera behinbetikoz kondenatu zirela adieraztea bilatu bada, oso modu eskematikoan egin dela behintzat, gainera daiteke.

21. IRAZUSTA'TAR, Jon Andoni: *Bizia garratza da...*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1950, 16. or.

Andoni eta Anderren bizitza errotik moztu du gerrak. Bordeleko portutik Colombarantz ateratzen diren egunetik ez dute une batez ere ezagutuko ongi izatea, zoriona. Beti gogoan izan zitekeena eta izan ez dena. Aberri-mina, maite zituzten emakumeei beren sentimentuak azaldu ez izana eta ezer esan gabe atzerriratzea... Egonezina, erraiekin bakerik eza, artegatasuna... nagusitzen doaz eta, jakina, barne-bakea, zoriona berreskuratu nahia. Urre-bilaketan itxi nahiko ditu zauriak Anderrek, Bixentarekin ezkonduz Andonik. Baina, sendatu ordez, zauriak gehitzen joango dira. Anderri zorrak eta gaitza gehitzen zaizkio, Andoni ezin bizi daitete Bixenta eta honek kapitain batekin izandako alabarekin. Ander eskale eta zaharkituak heriotzean kausituko du bakea. Andoni, Bixentaz bermaitemindu ondoren, zoriona dastatzen hasi aurretik, istripu batek eramango du. Gerrak "okertu" dituen bideak dira, ezbeharrera, sufrimentura, atsedean eta atsegini ez izatera eramanez ditu. Suntsitutako bizitza horien testuratzak, ordea, apunte, ohar, zirriborroaren marra ez du gainditzen. Elementu miresgarriak, harrigarriak, ez-ustekoak, halabeharrezkoak, zirraragarriak, eguneroko bizitzakoa ez denak, pertsona arruntari gertatzen ez zaion jazoerak pisu handia hartzen du. Zer esan bestela Anderrek Bogotako katedralean Miren lekamea ezagutzeaz eta batpatean gorpu gelditzeaz edo zoriona erdiestekor duan Andoni istripu batean hiltzeaz? Eten, suntsitu den bizitza baten ibilbidea ez da eramaten berbaldira, baizik eta bata bestearen ondotik datorren "istripu"-bilduma. Une hunkigarri, estu edo arriskudunez beteaz, tentsio-distentsio jokoan tentsioa tentsioaren gainean ekarriz eta distentsioaren tarteaz ezabatuz, estualdien jarraipen hutsa izatera heltzen da testua, lasaialdiari aukerarik eman gabe. Gertaeren abiadura handiak, pertsonaia bizi duen une berezi, arriskudun bakoitzari eskaintzen zaion hitz-ore urriak, estualdia bera xehetasun, ñabarduraz ez jазteak, elementu harrigarri, ez-usteko horien erabilerak halako ipuin-ukitu bat ematen dio. Amaiera txarreko ipuina, jakina, izan ere, kasu batean, heroiaren laguntzailea beranduegi heltzen da, anagnorisiak jada fruiturik ezin eman dezake eta bestean, heroiaren laguntzailea garaiz iritsi arren, alferrikakoa da pertsonaia ez dagoelako laguntza jasotzeko egoeran. Horregatik baieztu da arestian suntsitutako bizitza batzuen ibilbidea eramanez bizitza horien apunte, ohar, zirriborroa berbaldiratzen dela. Beste modu batean adierazita, ez da erakusten pertsonaien higadura-prozesua, alegia, ez da berbaldiz jазten eta xehe-xehe azaltzen pertsonaien higadura, esate soilean gelditzen baita.

Gerrak hondamena ekarri izanagatik, gerra bera oso gutxitan aipatzen da. Kausa da, hala ere, zeharka besterik ez dago jakiterik 36ko gerra denik, zuzen-zuzenean data ematen ez delako. Andonik Anderren galderari erantzunez "elbarrituk, gizajoak" egongo direla beren herrietan dio. "Elbarrituk" daude beraiek ere beren herrian ez egon arren. Elbarrituak utzi ditu guztiak. Baina elbarritasunaren irudi honen sorkuntza zoriaren eskutik dator eta batpateko "loaldi" eta iratzartzetatik eta ez gogoeta, bilakaeratik. Miren Orreaga, Anderrek isilpean maite zuen neska, lekame sartzen da. Arrebak idatziriko eskutitzaren bidez jakiten du eta "Ander asi zan Bogota'n eziñ bizi zala ta basamortura joateko gogoa zeukala" (*Bizia garratza da...*, 55. or.) esaten. Ander basamortura urre-bilaketara "denerako gogoa galduta iritxi zan, Miren galduta dena galduta jotzen zualako, ta illda ere ajolarik ez zitzaion. An gelditu zan" (*Bizia garratza da...*, 83. or.). Andonik, beriz, ez jakin nola, Jaungoikoaren laguntzarekin edo, sentimentu-aldaketa ezagutzen du²². Pertsonaien jokabideen azalpena gizakiak menderatzen ez dituen indarren esku gehiago uzten da giza ahalmenen esku baino. Zorte txarrak, batpateko ohartzeak eta abarrek hartzen dute indarra eta ez giza mailakoagoak diren bizi-pen, gogoeta eta abarrek.

22. "Jainkoak lagunduko dizu. Zuk zintzoa izatea naikoa dezu. Bere eskuetan dena utzi zazu" (*Bizia garratza da...*, 96. or.) diotsa Miren Orreaga lekameak Andoniri eta hau ohartuko da bere sentimentuez eta adieraziko dizkio Bixentari.

Pertsonaia predestinatuak dirudite. Txomin Agirreren pertsonaiak egileak euskal izaeraz ulertzen zuenetik kanpo gelditzen baziren porrotera kondenaturik zeuden. Hauek ere kondenaturik daude, ez harengan bezala euskal izaera utzi dutelako, baizik eta gerrak “okertu” duelako beren bizitza. Batean eta bestean kondena da garrantzizkoa, elbarrituak daudela esatea eta ez elbarritasuna aztertzea. Kausak ez dira xehe-xehe aztertzen eta testuratzen. Gerra kausa da. Hala dio Anderrek hil aurretixoan amari idazten dion eskuitzean:

“Guda madarikatu orrek sakabanatu ez ba giñun, nere Mirentxo Orreaga'rekin ezkonduko nitzan eta kito” (*Bizia garratza da...*, 89. or.).

Bixentak “gudan etorri zan kapitan bati geitxo xiñistu zion” (*Bizia garratza da...*, 59. or.) eta alaba du, Anderrek dioenez, “guda guztien isatsa ori izan oi da” (*Bizia garratza da...*, 60. or.) eta Andonik Mireni aitortzen dioenez “eta orain iruditzen zait kapitan ura eziñ aztu duala eta irudipen orrek nazka artuazi dit” (*Bizia garratza da...*, 95. or.).

Gudarik izan ez balitz zoriontsu izango ziren. Baina arrazoa ez da guda nozitu eta honek elbarri utzi izana, baizik eta isilpean hautatutako andregaien ondoan zoriona bilatzea eragotzi izana. Beraz, gerraren ondorioak maitasunaren alorreko porrotera eramaten dira eta porrot hau da elbarritasuna eragiten duena. Historian presente egonagatik, gerra berbaldian ia ausente dagoen kausa da. Dena den, ausente honek kalte egiteko duen ahalmena maitasun-istorio batzuen garapen zoriontsua eragoztera mugatzen da, beste alderdi batzuetara hedatu gabe sufrimentua sortzeko daukan indarra. Honela bada, gerrak zoritxarra dakar maitasun-istorio batzuk okertu dituen neurrian.

Ekaitzpean eleberrian ere gerra atzekaldean dagoen oihala besterik ez da. Zehazten ez den arren, jazoerak 36ko gerra-garaian kokatzen dira, gertaldi horretara igortzen duen hainbat erreferentzia bide, jakin daitekeenez. Baina gerra ez da kontalariaren orrialdeak xahutzen dituen langaia, baizik eta Aitzondo baserriko bizimodua.

Bada antzekotasun nabarmenik gerraren inguruan beren historiak lekutzen dituzten bi eleberrri hauen artean. Biek madarikatzen dute, bietan gertaera horren eragin kaltegarria jasango dute pertsonaiek, bietan berbaldian ia ausente dago eta berez beste zerbait da kontagaia.

Aitzondo baserriko bizilagunengana, semerik zaharrenaren heriotza eta familiaren haus-keta dakar, aitona-ilobak etxetik ihesean joan beharrean suertatzean. Berbaldi-mailan, ordea, noizbehinka ate-joka datorren gertaera besterik ez da gerra. *Bizia garratza da* eleberrian zorionaren bila errari zebiltzan pertsonaien gorabeherak betetzen bazuten lekugune narrati-boa Aitzondo baserriko bizimoduak beteko du *Ekaitzpean*ekoa.

Euskal eleberrigintzan sorreratik bertatik euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duen irakurle-arengana heldu nahia behin eta berriz gogoan izan da eta kezka honek eraginik izan du testua burutzean. Eizagirrek hitzaurrean bertan aitortzen du:

“Euskeraz irakurtzeko zaletasuna pixtu-arazi eta errezago irakurtzeagatik egintza onen geiena alkarrizketa-eran antolatu det. Eta ala, alkarrizketaz egiña dagona arturik, antzokirako ere errez antzeztu liteke”²³.

Kapitulu bakoitzaren hasieran -hiru ditu- sarrera moduan edo, kontatu egiten du. Ondoren ilunabar batean edo egun batean, pertsonaia desberdinak jartzen ditu elkarrizketa luzean. Eta, honela, eleberrian ehotzen ari den historia elkarrizketen bidez ematen da ia-ia osorik.

23. EIZAGIRRE'TAR, Joseba: “Aurretik” in *Ekaitzpean. Ipuinberri*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1948, 4. or.

Alabaina, ez da zorrik gabeko aukera. Hiru ataletan banaturik -"guda-otsak", "babes goxoa", "ekaitz izugarria"- bakoitzak Aitzondo baserriko ohiko bizimoduan gerrak ernaltzen duen estualdiren bat ekarriko du: semerik zaharrenaren heriotza, gerran zauritutako Xabier babestea, zauritua salatu dutelako Aitzondoko bizilagun batzuen ihesa. Egunerokotasuna, famili giroko ohiko elkarrizketak haustera datozen gerrako berri edo gertaerak dira. Baita, azken batez, tentsioa sortzen eta mataza eraikitzen dutenak ere.

Egituratzte-modu honek ilunabar edo egun bateko, denbora labur bateko eszena laburpen erraldoi batzuekin konbinatzen du eta honela gerra noizbehinka, aldian behin, Aitzondon bere agerrera egiten duen gertaera baino ez da. Gerraren zauri bat sendatu eta berriro agerrera, sendatu eta berriro agerrera. Kontaketak kaltea bakarrik dakarrela esaten badu ere, etsipenez betetako pertsonaia horiek, negar handirik gabe, jasan egiten dute. Errebeldiak, madarikazioak, ernegazioak eta berauen adierazpenak ez du tarterik. Aitzondoko bakea hautsi duen elementua da, baina pertsonaien eramankortasun neurrigabeak ez dio ezpalik ateratzen jazoera hunkigarri, latz honi. Kontrastea eta desoreka sortzeko bitarteko soilak da -ohiko bizimodu baketsua / bakerik eza-, inolako barne-astinaldirik eragiten ez duena pertsonaiengan. Uste tinkoekin bizi zirengan ez du lurrikararik sortuko, ez ditu uste horiek kolokan jarriko.

Aurreko mendeko eleberri errealistak adierazten zuen mundua lasaia zen, egonkorra, egia absolutua erdietsi zitekeela uste zuena. Ikusi besterik ez dago nola kontalari orojakile erraldoi batek ekintzen alderdi guztiak ezagutu ez-ezik komentatzeko lizentzia ere hartzen zuen. Gertaerak berak azaldu bezala jazo dira, ez du zalantza-izpirik eta ziurtasun osoarekin ematen ditu. Berak esan bezala izan dira. Ez dago bertsiorik. Bizi izandako historia bat eta bakarra da, berak adierazitakoa, hain zuzen ere. Egia da eta egia kontatzen ari denaren ustetik kontatzen du.

Euskal eleberrigintzak bigarren mundu-gerra amaitu eta gero ere mundu ziur honetan bizi izaten jarraitzen du, edo, edozein kasutan, ziurragoan. Bestela esanda, oraindik kontzientzia modernoaren eriden ez duen munduan ditu oinak. Eleberri errealista kontzientzia modernoaren produktua da, ikuspegi esistentzial baten produktua, ikuspegi esentzialistarekin hautsi duena; gizakiaren historizitatean eta baloreen historizitatean oinarritzen den mundua da berea eta ez historiaren gainetik dauden balore unibertsal eta iraunkorrak euskarri dituenak.

Euskal eleberrigilea sortutako mundu batean bizi da, sortuta dagoen munduan. Baloreak betidanikoak dira, eternitate osotik esistitzen dute gizabanakoaren kanpotik. Aintzinatearen eta Erdi Aroaren mundua da.

Euskal eleberrigintzaren zimenduetan ez dago giza esperientziarik indarririk. Gizakia ez da eginaz doan izakia, ez dago bilakaeraren menpe. Sineskerak, usteak, ohiturak, gizartea... ez daude aldaketaren menpe, historiaren, zirkunstantzien, bizi izandakoaren menpe. Baloreak betikotasunaren kategoriara eramaten dira. Beraz, zirkunstantziek ezin eragin dezakete pertsonaiengan. Gerra deitzen den zirkunstantzia horrek ezin eragin dezake. Pertsonaiek zirenari eutsiz, lehenean jarraituko dute. Gerrak elbarritasuna, hondamendia, nekea eta sufrimendua dakartza. Pertsonaiek pairatuko dute, auzi moralik planteatu gabe, ordea. Oso modu sinplifikatuan bada ere, grafikoa eta argia izan daitekeelako, esango genuke aurreko mendeko eleberri errealistak auzi moralak planteatu eta epaitu ere egiten zituela, lehen mundu-gerratearen ondoren areagotzen den iraultzatik sortzen denak auzi moralak aurkezteari berari uko egiten diola eta euskal eleberrigintzak bere sorreratik mende honen bigarren erdirarte auzi moralik sortu ere ez duela egin. Ezinezko ikusten du, baina ez mundu zingiratsuan bizi delako, baizik eta auzi moralik ez dagoelako. Auzi moralik ez dago baloreak betidanikoak direlako eta honela ontasunaren edo gaiztakeriaren nozioak, esate baterako,

behinbetikoz ezarrita eta mugatuta daudelako. Pertsonaia horietako ardatzen batean kokatuko da eta gerta ahalak gerta tinko eutsiko dio. Gehienez ardatzez aldatuko da, ez auzi moralen baten planteamenduak hartaraturik, aitzitik, gizakiaren gainetik dagoen indarren batek –Jaungoikoak, batpateko argiak...– aldarazi dutelako.